

**228/2005 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa,
Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko
martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra
administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko
Araudia onetsi duena
(BAO Abenduaren 31koa)**

HITZAURREA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra onestearekin batera Bizkaiko zerga-arautegi orokorra eraberritu eta eguneratu egin da eta goitik behera berrikusi dira Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzeko aplikatu behar dituen prozeduren egitura eta arauak.

Foru arau horretako V. tituluan zergen arloko berrikuspen prozedura guztiak araupetu dira, hala Zerga Administrazioak ofizioz hasten dituenak nola interesatuak eskaturik egiten direnak, aurkez daitezkeen errekurso eta erreklamazioak barne direla.

Foru dekretu honek artikulua bakarra dauka. Bertan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko Araudia onetsi da.

Bost tituluk osatzen dute berrikuspenari buruzko Araudia.

I. tituluan bildu dira xedapen orokorrak, aplikazio eremua, interesatuak aurkeztu beharreko idazkiaren gutxieneko edukia, idazki horren akatsak zuzentzeko arauak eta ordezkariaren bitartez jarduteko prozedura.

II. tituluaren bost kapituluetan berrikuspen prozedura bereziak arautu dira: zuzenbide osoz deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura, deuseztatu daitezkeen egintzak kaltegarriak direla adierazteko prozedura, ezeztapen prozedura, akatsak konpontzeko prozedura eta zor ez ziren sarrerak itzultzekoa.

III. titulua berraztertze prozeduraz ari da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 230. artikulutik 233.era bitartekoetan aurreikusitako prozeduraz hain zuzen. Errekurso ekonomiko-administratiboaren aurretik aurkez daitekeen berraztertze errekursoari prozedura arina ezarri zaio, beti ere administratuaren berme juridikoak errespetatzen dituena. Horrela, ahal dela, errekurritutako egintza eman duen Administrazioako organoak berak ebatziko du zergen kudeaketaren inguruan sortutako eztabaida.

IV. tituluan erreklamazio ekonomiko-administratiboak araupetu dira bi kapituluetan; lehenengoan xedapen orokorrak bildu dira eta bigarrean prozedura ekonomiko-administratiboa arautu da. Kapitulu bakoitzak hiru atal ditu. Lehenengo kapituluaren hasieran Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren antolaketa eta eskumenak ageri dira, jarraian erreklamazioen zenbatekoa eta metaketa, eta azkenik interesatuei buruzko atala dago. Bigarren kapituluaren prozeduraren antolamendua eta instrukzioa dira aipagai, eta, azken atalean, berrikusteko errekurso berezia.

V. tituluak hiru kapitulu ditu. Horien artean berritasunagatik azpimarratzekoa da lehenengo, errekurritutako egintzaren etendurari buruzkoa. Lehenengo eta behin, arauak ezarri dira aurkaratutako egintzaren betearazpena eten ahal izateko bermerik jarri gabe, zerga zorra borondatez ordaintzeko epea amaitu ez denean edo premiamendu probidentziaren aurkako

errekurtsoa jarri denean, baldin eta, bi kasuetan ere, borondatez ordaintzeko epearen amaieran gehienez 7.500 euroko zorra badago, bai eta zehapenak aurkaratzen diren kasuetan ere.

Hurrengo ataletan kasu hauek bildu dira: Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusitako bermeak behar dituen etendura automatikoa, bestelako bermeak behar dituen etendura, eta bermerik jarri behar izan gabe eteteko aukera. Kapituluaren amaierako atalean etendurari buruzko xedapen orokorrak jaso dira.

II. kapituluan ebazpen ekonomiko-administratiboaren eta epaileen ebazpenen betearazpena araupetu da.

Araudiaren azken kapitulua bermeen kostuaren itzulketaz ari da, itzulketaren norainokoaz eta prozeduraz, hain zuzen ere.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2005eko abenduaren 27ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe.

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko Araudia onestea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko Araudia onetsi da, eta foru dekretu honen eranskin gisa ematen da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arauak indargabetzea.

1. Ondokoak indarririk gabe geratu dira:
 - a) 200/2002 Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, errekurtso ekonomiko-administratiboaren aurreko berraztertze errekurtsoa araupetu duena.
 - b) 145/1990 Foru Dekretua, abenduaren 4koa, zor ez ziren zerga-sarrerak itzultzeko prozedura araupetu duena, 8, 9, 13 eta 15. artikulua, bigarren xedapen gehigarria eta laugarren xedapen gehigarria izan ezik.
 - c) 93/2002 Foru Dekretua, maiatzaren 14koa, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren eskumenak, osaera, antolamendua eta funtzionamendua araupetu dituena.
 - d) 152/2000 Foru Dekretua, abenduaren 12koa, zergen arloko zorren betearazpena eteteko jarritako bermeak itzultzeko prozedura araupetu duena.
2. Halaber, foru dekretu honetan xedatu denaren aurka dauden lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetu dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan eta beraren bidez onetsi den araudian xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko behar diren arau guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau 2006ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

ERANSKINA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO.ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO.2/2005 FORU ARAU OROKORRA.ADMINISTRAZIO BIDEKO BERRIKUSPENAREN. ARLOAN GARATZEKO ARAUDIA

I TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

Araudi honen bidez Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatu da administrazio bideko berrikuspenari dagokionez eta egintzen betearazpena eteteko jarritako bermeen kostua Administrazioak itzultzeari dagokionez.

2. artikulua. Eskabidearen edo prozedura hasteko idazkiaren edukia.

1. Araudi honetan araututako prozedurak interesatuaren eskariz hasten direnean, eskabidean edo prozedura hasteko idazkian ondokoak bildu beharko dira:
 - a) Interesatuaren izen-deiturak edo sozietate-izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea. Ordezkararen bidez jarduten denean, haren identifikazio osoa jarri beharko da.
 - b) Errekurtsoa edo erreklamazioa aurkezten zaion edo prozedura hasteko eskatzen zaion organoa.
 - c) Aurkaratu nahi den administrazio-egintza edo jarduketa, edo espedientearen xede dena; hura eman zen eguna, espedientearen zenbakia eta espedienteari buruzko gainerako datu jakingarriak.
 - d) Zer eskatzen duen interesatuak.
 - e) Jakinarazpenak zein bidetatik jaso nahi diren, edo non jaso nahi diren.
 - f) Idazki edo eskabidearen lekua, data eta sinadura.
 - g) Itzulketa eskatzen denean, eskatzailearen banku kontuaren zenbakia eman behar da, dirua bertan sartzeko. Idazkian halakorik agertu ezean, itzultzen den kopurua Ogasun eta Finantza Sailaren datu-basean ageri den banku kontuan ordainduko da.
 - h) Arautegi aplikagarrian ezarritako beste edozein.
2. Eskabideak edo prozedura hasteko idazkiak aurreko idatz-zatian aipatutako betekizunak betetzen ez baditu, araudi honetan akatsak zuzentzeko beren beregi ezarritako arauen kalterik gabe, interesatuari agindeia egingo zaio, akatsa zuzendu dezan edo behar diren agiriak aurkeztu ditzan hamabost eguneko epean, agindeia jakinarazi eta biharamunetik hasita. Ohartarazi egingo zaio agindeiari jaramonik egin ezean jarduketak artxibatu egingo direla eta eskabidea edo idazkia aurkeztu gabekotzat joko dela.

2.bis artikulua. Berrikuspen prozedura etetea adiskidetasunezko prozedura denean

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hogeita hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorruta, V. tituluaren araututako berrikuspen prozeduretako bat eten behar denean adiskidetasunezko prozedura bat izapidetu delako,

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko maiatzaren 22ko 66/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergapetze zuzenaren arloko adiskidetasunezko prozeduren erregelamenduko 2. artikuluan aipatzen den agintari arduradunak eskatzaileak edo adiskidetasunezko prozedura hasteko eskabidean agertzen diren inplikaturako gainerako alderdiek jarritako administrazio-errekurtsoen edo errekurtsio judizialen berri emango dio organo berrikusleari, baita beste edozein errekurtsorena ere, halakoen berri duenean.

Halaber, ardura duen agintari horrek adiskidetasunezko prozeduraren amaieraren berri emango dio berrikuspen organoari, eta amaiera xedatzen duen erabakiaren kopia helaraziko dio, berrikuspen prozeduraren etetea bertan behera uzteko eta ebazpena emateko.

3. artikulua. Ordezkaritza.

1. Ordezkaritza bitartez jarduten denean, ordezkaritza behar adinako ordezkaritza frogatu beharko du, hurrengo idatz-zatian berrespenari buruz xedatutakoaren kalterik gabe.
2. Organo eskudunak hamar eguneko epea ezarriko du, agindeia jakinarazi eta biharamunetik hasita, ordezkaritza frogatzen duen agiria aurkezteko edo agiri horren akatsak zuzentzeko. Epe berean interesatuak aukera izango du ordezkaritza beraren izenean egindako jarduketara berresteko eta hurrengo jarduketara begira ordezkaritzaren egiaztatzea aurkezteko.

II TITULUA BERRIKUSPEN PROZEDURA BEREZIAK

I KAPITULUA ZUZENBIDE OSOZ DEUSEZAK DIREN.EGINTZAK BERRIKUSTEKO PROZEDURA

4. artikulua. Hasiera.

1. Zuzenbide osoz deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura ofizioz edo interesatuaren eskariz hasi ahal da, hau da, egintza eman zuen organoaren edo goragoko baten erabakiaren bidez edo interesatuak hala eskaturik. Azken kasu horretan, egintza baten berrikuspena eskatu nahi denean, hura eman zuen organoari zuzendu behar zaio idatzia. Ofiziozko hasiera interesatuari jakinaraziko zaio.
2. Prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak berrikuspen eskaerak izapidetzeko ez onartzea erabaki ahal izango du, zioak azalduta, Zergei buruzko Foru Lege Orokorreko 225. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako kasuetan.

5. artikulua. Izapidetzea.

1. Berrikusi beharreko egintza eman zuen organoak izapidetuko du prozedura.
2. Prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak beharrezkotzat jotzen duen edozein datu edo aurrekari eskatu ahal izango du ebazpen proposamena egiteko.
3. Interesatuak eta dena delako egintzaren bidez eskubideak aintzatetsi edo interesak ukitu zaizkien gainerako pertsonen administrazio espedientea eskura izango dute hamabost eguneko epean, egokitzen jotzen dituzten alegazio, agiri eta frogak aurkeztu ahal izan ditzaten. Espedientea ikusteko epearen hasiera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epe hori.
4. Interesatuak entzuteko izapidea amaiturik, prozedura izapidetzeko eskumena duen organoak ebazpen proposamena egingo dio ebazteko eskumena duen organoari.

6. artikulua. Ebazpena.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak deuseztasunaren adierazpena egingo du, beraren Lege Aholkularitzak aldeko irizpena emanez gero.

II KAPITULUA DEUSEZTATU DAITEZKEEN EGINTZAK KALTEGARRIAK DIRELA ADIERAZTEKO PROZEDURA

7. artikulua. Hasiera.

Deuseztatu daitezkeen egintzak kaltegarriak direla adierazteko prozedura ofizioz hasiko da, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren erabakiaren bidez. Hasiera interesatuari jakinaraziko zaio.

8. artikulua. Izapidetzea.

1. Egintza eman zuen organoak izapidetuko du prozedura. Ebazpena emateko kontuan hartu beharreko aurrekari buruzko txostena egingo du. Gainera, ebazpen proposamena egiteko beharrezkotzat jotzen den beste edozein datu, aurrekari edo txosten eskatu ahalko zaio.
2. Administrazio espedientea interesatuen eskura egongo da hamabost eguneko epean, egoki deritzeten alegazio, agiri eta frogak aurkeztu ahal izan ditzaten. Epearen hasiera jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da epe hori.
3. Interesatuak entzuteko izapidea buruturik, prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak ebazpen proposamena egingo du.
4. Proposamena egin ondoren, prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak txostena eskatu beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiko Lege Aholkularitzari, egintza kaltegarria dela adieraztearen bidezkotasanari buruzkoa.
5. Txosten juridikoa jaso eta gero, espediente osoa edo haren kopia bidaliko zaio prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoari.

9. artikulua. Ebazpena.

1. Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak izango du ebazteko eskumena.
2. Ebazteko eskumena duen organoak bidezkoa deritzon ebazpena emango du eta, kaltegarritasunaren adierazpena eginez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Lege Aholkularitzari bidaliko dio, administrazio espedientearen kopia erkatuarekin batera, Administrazioarekiko auzien bidetik egintza aurkaratzeko.

III KAPITULUA EGINTZAK EZEZTATZEKO PROZEDURA

10. artikulua Hasiera.

1. Ezeztapen prozedura ofizioz hasiko da beti, egintza eman zuen organoak berak hala erabakita. Dena dela, interesatuek prozedura hasteko eskatu ahal izango diote egintza eman zuen organoari, idazki bidez. Administrazioak idazki hori jaso izana adierazi besterik ez du egin beharko. Hasiera interesatuari jakinaraziko zaio.
2. Zergak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak Zergei buruzko Foru Lege Orokorreko 227. artikuluan xedatutakoaren arabera ezeztatu ahal izango dira, baita bide ekonomiko-administratiboan aurkaratutakoak ere, harik eta Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak ebazpena eman edo amaierako erabakia hartu arte.

3. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren ebazpenak eta amaierako erabakiak, baita erabaki eta ebazpen horien xede diren zerga-aplikazioko egintzak eta zehapen egintzak ere, ezeztaezinak izango dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 220. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

11. artikulua. Izapidetzea.

1. Egintza eman zuen organoak beharrezkotzat jotzen dituen datu, aurrekari eta txosten guztiak eskatu ahalko ditu.
2. Bidezkoa denean, interesatuei hamabost eguneko entzunaldia emango zaie, epe horren hasiera jakinarazi eta biharamunetik hasita, egokitzen jotzen dituzten alegazio, agiri eta frogak aurkeztu ahal ditzaten.
3. Interesatuak entzuteko tramitea buruturik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Lege Aholkularitzari txostena eskatuko zaio, beharrezkotzat jotzen bada.

12. artikulua. Ebazpena.

Egintza eman zuen organoak berak emango du ebazpena.

IV KAPITULUA AKATSAK ZUZENTZEKO PROZEDURA

13. artikulua. Akatsak zuzentzeko prozedura.

1. Prozedura ofizioz hasten denean, prozedurari hasiera emateko erabakiarekin batera akatsak zuzentzeko proposamena ere jakinaraziko da, interesatuak alegazioak egin ahal izan ditzan hamabost eguneko epean, proposamena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Zuzenketa interesatuen mesederako bada, zilegi izango da interesatuei prozeduraren ebazpena besterik ez jakinaraztea.

2. Prozedura interesatuaren eskariz hasiz gero, Administrazioak zuzenean eman ahal izango du bidezko deritzon ebazpena, baldin eta interesatuak aurkeztutako gertaera, alegazio edo frogak baino ez badira ageri prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen ebazpena emateko orduan. Hala ez bada, ebazpen proposamena interesatuari jakinarazi beharko zaio, bere eskubidearen alde egokitzen jotzen duena alegatu ahal izan dezan hamabost eguneko epean, proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

V KAPITULUA ZOR EZ ZIREN SARRERAK ITZULTZEKO PROZEDURAK

LEHENENGO ATALA ZOR EZ ZIREN SARRERAK ITZULTZEKO PROZEDUREI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

14. artikulua. Sarrerak itzuli behar diren kasuak.

Zor ez ziren sarreraren itzulketarako eskubidea aintzatetsi ahal izango da ondoko kasuetan:

- a) Zor ez ziren sarreraren itzulketarako eskubidea aintzatesteko prozeduran, Zergei buruzko Foru Arau orokorreko 229. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako inguruabarrak gertatzen badira.
- b) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 118. artikuluko 2. idatz-zatian autolikidazioak zuzentzeko ezarrita dagoen prozeduran, bidegabeki jasanarazitako atxikipen edo konturako sarreraren kasuak eta legearen aginduz jasanarazi beharreko zergen kasuak barne direla.
- c) Araudi honetako II. tituluaren araupetutako berrikuspen prozedura berezietan.

- d) Araudi honetako III. eta IV. tituluetan araupetutako administrazio errekurtsioen edo erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpenen itzalpean, edo epaien zein ebazpen judizial irmoen itzalpean.
- e) Zergak aplikatzeko prozeduretan eta zergen arloko arautegian ezarritako beste edozein prozeduratan.

15. artikulua. Zor ez ziren sarreraren itzulketarako eskubidearen edukia.

Zor ez zen sarrera egin izanaren ondorioz kopuru hauek itzuli beharko dira:

- a) Zor ez zen sarreraren zenbatekoa, ordaindutako errekargu eta korrituak barne direla, halakorik ordaindu bada.
- b) Ordaindutako kostuak, zor ez zen sarrera premiamendu prozedura batean egin bada.
- c) Zor ez zirela ordaindutako kopuruek sortu dituzten berandutza korrituak. Zergapekoak ez du horiek eskatu beharrik izango, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 31. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

16. artikulua. Itzulketa egitea.

- 1. Itzulketarako eskubidea aintzatetsiz gero, berehala egingo da itzulketa.
- 2. Administrazio ebazpenak edo ebazpen judizialak dauden bezala beteko dira. Nahikoa izango da epaiaren edo ebazpen judizialaren lekukotza edo administrazio ebazpena nahiz erabakia edo haren kopia ziurtatua, Administrazioko organo eskudunek itzulketa egin dezaten, behin egiaztaturik erabaki edo ebazpena irmoa dela, edo irmoa ez izan arren gauzatu egin behar dela, sarrera egin zela, oraindik ez dela itzuli eta ez dela preskribatu itzulketarako eskubidea.

BIGARREN ATALA ZOR EZ ZIREN SARREREN ITZULKETARAKO ESKUBIDEA AINTZATESTKO PROZEDURA, ARAUDI HONETAKO 14.1.A) ARTIKULUKO KASUETAN

17. artikulua. Hasiera.

- 1. Preskripzio epearen barruan eta araudi honetako 14. artikuluko 1. idatz-zatian azaldutako kasuetan, zor ez ziren sarreraren itzulketarako eskubidea aintzatesteko prozedura ofizios edo interesatuak hala eskaturik hasi ahal izango da.
- 2. Prozedura interesatuaren eskariz hasten denean, zergapekoek eta subjektu arau-hausleek itzulketa eskatzeko eskubidea izango dute baldin eta Foru Ogasunean zor ez zituzten sarrerak egin badituzte euren zerga-betebeharren zioz edo zehapenen zioz. Haien oinordekoek ere eskubide bera izango dute.

Ebazteko eskumena duen organoari zuzendu beharko zaio eskabidea, eta, araudi honetako 2. artikuluan aipatutako datuez gainera, zor ez zen sarreraren justifikazioa eduki beharko du. Itzulketarako eskubidea frogatzen duten agiriak eta egokitzat jotzen diren beste frogabide guztiak erantsiko dira. Sarreraren egiaztagirien orde, egindako sarrera identifikatzeko datu zehatzak jarri ahal izango dira, besteak beste, sarrera egin den eguna eta tokia eta haren zenbatekoa.

- 3. Diruzaintza Zerbitzuak ordainketa eragin zuen zorra osorik edo zati batean kitatu dela egiaztatzen duenean, gaindikina zergapekoaren esku jarriko da besterik gabe, aurrekontuz kanpoko eragiketen bitartez.
- 4. Ordainketa hirugarren batek egin badu interesatuaren izenean, eta hori frogatzen bada, itzulketa ordaindu ahal zaio.

18. artikulua. Prozedura izapidetzea.

1. Espedientea izapidetzean, Zerga Administrazioako organo eskudunak egiaztatu egingo du itzulketarako eskubidea dakarten inguruabarrak gertatu direla, sarrera egin dela eta ez dela itzuli. Halaber, eskubidearen titulartasuna eta itzulketaren zenbatekoa egiaztatuko ditu.
2. Gainera, interesatuei edota hirugarrenei agindeiak egin ahalko dizkie, eman behar duten informazio orokorra aurkez dezaten edo egiaztatgiri egokien bidez berrets dezaten.
3. Izapideak egiteko eskumena duen organoak beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango ditu.
4. Aurreko jarduketa horiek amaiturik, izapideak egiteko eskumena duen organoak ebazpen proposamena egingo dio ebazteko eskumena duen organoari.

19. artikulua. Amaiera.

1. Espedientea izapidetzearen ardura izan duen organoak ez, hierarkian gorago dagoenak ebatzi beharko du, prozedura hasten denetik sei hilabete igaro baino lehen.
2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, prozedura ofizioz hasten bada edo itzulketaren eskabidea zuzena bada, besterik gabe jakinaraziko da eskatutako itzulketarako eskubidea aintzatesten duen erabakia.
3. Alde batek eskaturik hasten diren prozeduretan, interesatuak bere eskabideari administrazio isiltasunaren bidez gaitz iritzi zaiola pentsatu ahalko du baldin eta sei hileko epean ebazpenik jakinarazten ez badiote, berariazko arautegian beste epe bat ezarri ezean.
4. Eskatutako itzulketarako eskubidea aintzatesten bada ere, gero zerga-betebeharra egiaztatu ahal izango da zergak aplikatzeko edozein prozeduraren bitartez.
5. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak erabakiko du zeintzuk kasutan izango diren bidezkoak zerga arloko itzulketak ordaintzeko talde-espedienteak, baita horiek bete beharreko baldintzak edo betekizun formalak ere.

III TITULUA BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA

20. artikulua. Errekurtsoa jartzea.

1. Errekurtsoa jartzeko idazkian alegazioak jasoko dira, gertaerak eta zuzenbideko oinarriak azalduz. Idazki horrekin batera, eskaerari eusten dioten agiriak aurkeztuko dira.
2. Aurkaratutako egintzaren etendura araudi honetako V. tituluko I. kapituluan xedatutakoaren bidez arautuko da.

21. artikulua. Berraztertzeko errekurtsoarean ondoreak, beste errekurtsu mota batzuk jartzeari dagokionez.

Berraztertzeko errekurtsoa jartzearekin batera, beste errekurtsu mota batzuk jartzeko epeak eten egingo dira, eta berraztertzeko errekurtsorekin ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera epe horiek berriro ere zenbatuko dira hasieratik. Administrazioaren isiltasunaren ondoreak gertatzen diren unetik aurrera ere bestelako errekurtsuak jarri ahal izango dira.

22. artikulua. Espedientea agerian jartzea.

Interesatuak administrazio espedientea aztertu nahi badu bere alegazioak prestatzeko, organo jardulearengana jo beharko du, aurkaratu nahi duen administrazio egintzaren jakinarazpen egunaren biharamunetik aurrera, errekurtsua jartzeko epea amaitu baino lehen.

Organo eskudunak nahitaez erakutsi beharko dio espedientearen edukia, aurkaratutako egintzarekin zerikusia duena bakar-bakarrik, edota aurkaratutako egintzarekin zerikusia duten administrazio jarduketara zehatzei buruzko agiriak, beren beregi eskatzen baditu.

Behin errekurtsua aurkeztuta ezin izango da espedientea aztertu alegazioak prestatzeko.

23. artikulua. Agiri osagarriak.

Ebazteko eskumena duen organoak egokitzat jotzen dituen agiri osagarriak eskatu ahal izango ditu errekurtsua ebazteko. Eskatutako agiriak hamabost egun balioduneko epean aurkezten ez bazaizkio, lehendik dauzkan agiriak aztertuz ebatzi ahal izango du errekurtsua.

24. artikulua. Prozedurako interesatuak.

1. Prozedura izapidetzen ari den bitartean ikusten bada legebidezko eskubide edo interesen titularren bat ez dela prozeduran agertu, errekurtsua jakinaraziko zaio, alegazioak egin ahal ditzan. Alegazioak egiteko hamabost eguneko epea emango zaio jakinarazpen egunaren biharamunetik hasita.
2. Organo eskudunak bidezkoz jotzen badu interesatuek aipatu ez duten konturen bat aztertu eta ebaztea, prozeduran agertu direnei azalduko die eta hamabost eguneko epea emango die alegazioak egiteko. Epearen hasiera jakinarazi eta biharamunetik zenbatuko da epe hori.

25. artikulua. Errekurtsua ebaztea.

1. Ebazpena jakinarazteko epea hiru hilekoa izango da, errekurtsua aurkeztu eta biharamunetik hasita. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, errekurtsuari gaitz iritzi zaiola pentsatu ahalko da erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzearen ondoretarako, berriazko ebazpenik ematen ez denean erreklamazio hori jarri ahal izango baita. Berriazko ebazpenaren aurka ere erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango da.
2. Ustezko gaitzirizpenak ez du errekurtsua ebatzi beharra kentzen.
3. Errekurtsuari gaitz irizten zaionean, borondatezko epearen amaieratik gaitzirizpen egunera arte sortutako berandutza korrituak likidatu eta jakinaraziko dira, Zergei buruzko Foru Lege Orokorreko 26. artikuluko 9. idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe.

Hala ere, zerga zorra bide ekonomiko-administratiboan eteten denean, ez da berandutza korriturik eskatuko harik eta administrazio bidea amaitu arte.

26. artikulua. Ebazpena jakinaraztea.

Berriazko ebazpena errekurtsogileari jakinarazi behar zaio eta gainerako interesatuei ere bai, egonez gero.

IV TITULUA ERREKLAMAZIO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK.

I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK.

LEHENENGO ATALA BIZKAIKO FORU AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN ANTOLAKETA ETA ESKUMENAK

27. artikulua. Eskumenak.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak auzialdi bakarrean ezagutzen ditu Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 234. artikuluan ezarri diren egintza eta jarduketan aurka eragindako erreklamazio ekonomiko-administratiboak.
2. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren ebazpenek administrazio bidea agortuko dute. Hala ere, horien aurka Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da jurisdikzio horri buruzko arautegian ezarritako moduan eta epeetan.

28. artikulua. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren osaera.

Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak kide hauek izango ditu: burua; buruordea, bidezkoa denean; kideak; txostengileak, berariaz esleitzen zaizkien erreklamazioetan; eta legelari-idazkaria.

29. artikulua. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren atalak.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak lau atal ditu:
 - a) Lehenengoa: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atala.
 - b) Bigarrena: Zeharkako Zergen atala.
 - c) Hirugarrena: Toki Zergen atala.
 - d) Laugarrena: Zuzeneko Zergen atala.
2. Lehenengo atalean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko egintzen edo likidazioen kontra jartzen diren erreklamazioak hartzen dira, Laugarren atalari beren beregi esleitu zaizkionak izan ezik.

Bigarren atalean zeharkako zergen ziozko egintzen eta likidazioen aurka jarritako erreklamazioak hartzen dira.

Hirugarren atalean honakoak hartzen dira: Foru Aldundiak kudeatzen dituen toki zergen ziozko egintzen eta likidazioen aurka jarritako erreklamazioak, oinordeko edo arduradunen aurkako prozeduretan egindako jarduketak eta beste ataletan sartzen ez diren erreklamatzeko moduko gainerako egintzak.

Azkenik, laugarren atalean, zuzeneko zergen ziozko egintzen edo likidazioen aurka jarritako erreklamazioak hartzen dira; baina Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kasuan soilik hartzen ditu ikuskapen akten ondoriozkoak.

Halaber, atal horietako bakoitzak zergei buruzko zerga-bilketa prozedurako jarduketak hartzen ditu, horiek hartzea agindu bazaio. Salbuespen bakarra, oinordeko edo arduradunen aurkako prozedurak dira.

30. artikulua. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren antolaketa.

1. Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak osoko bilkuretan edo saletan ebatziko ditu erreklamazioak.

Auzitegiaren osoko bilkuretan burua, buruordea, kide-atalburuak eta legelari-idazkaria egongo dira.

Auzitegiko saletan, berriz, hauek egongo dira: burua, buruordea, kide-atalburua, atal horri atxikita dauden gainerako kideak edo buruak kargu hori dutenen artean izendatzen dituen kideak, berriaz esleitzen zaizkien erreklamazioetako txostengileak eta legelari-idazkaria. Auzitegiko salak ezin izango dira, inola ere, bi kide baino gutxiagorekin eratu.

2. Kide bat edo batzuk eta txostengile bat edo batzuk egongo dira atxikita atal bakoitzari; Foru Aldundiak izendatutako kidea izango da ataleko burua. Bestalde, Auzitegiko buruak izendatuko ditu erreklamazioen saletarako kideak eta txostengileak; horiek, bada, aldi berean sala bat baino gehiago izan dezakete.
3. Buruak egokitzen jotzen duenean, Auzitegiak Foru Administrazioan lan egiten duen edozein funtzionario edo pertsona kualifikatu entzungo du.
4. Legelari-idazkariak hizpidearekin eta hautespidearekin jardungo du Auzitegian.
5. Buruaren kargua hutsik dagoenean, bera falta denean, gaixorik dagoenean, abstenitzen denean, ezesten denean eta, oro har, bidezko beste arrazoiren bat ematen denean, buruordeak ordeztuko du; buruordea ez dagoenean kide-atalburu zaharrenak ordeztuko du. Buruordea ez badago ere, Auzitegia behar bezala eratuta egongo da. Legelari-idazkariaren ordezkoa Administrazio Idazkaritzako burua edo kide-atalburu zaharrena izango da. Aukera berdina dituztenean zaharrenak ordeztuko du.

Auzitegiak osoko bilkuran jarduten duenean, kide-atalburuen ordezkoa dagokion atalari atxikita dagoen kide zaharrena izango da, bestela, buruak izendatzen duen kidea; Auzitegiak salan jarduten duenean, berriz, buruak izendatzen duen kide-atalburuak ordeztuko du. Txostengilearen ordezkoa buruak izendatzen duen beste txostengile bat izango da.

31. artikulua. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren jardunbidea.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak, oro har, osoko bilkuran jardungo du erreklamazioa 25.000 euro baino gehiagokoa denean edo, ezarpenari lotuta dauden ondasun eta eskubideen balioen egiaztapenak onesteko egintzetan edo likidazioa egin aurretik aurkaratzeko modukoak diren balioak zein zerga-oinarriak ezartzeko bestelako egintzetan, 500.000 euro baino gehiagokoa denean.

Era berean osoko bilkuran aztertuko dira berrikusteko errekurtso bereziak eta, kasu bakoitzaren gaia nahiz inguruabarrak aintzat hartuta eta dagokion ataleko kide-buruak proposatuta, buruak aukeratzen dituen erreklamazioak.

Gainerako erreklamazioak, berriz, erreklamazioen saletan aztertuko dira.

2. Buruak, zuzendaritza organiko eta funtzionalaz gainera, araudi honetan ezartzen diren eginkizunak ere izango ditu; langile guztien gorengo mailako arduraduna izango da.
3. Kideek eta txostengileek proposatuko dituzte ebazpenak, prozedura ekonomiko-administratiboak amaitzeko gainerako erabakiak eta buruak agintzen dizkien euren eginkizunekin lotutako gainerako zereginak.
4. Legelari-idazkariaren eta Administrazio Idazkaritzako buruaren eginkizunak dira: erreklamazio ekonomiko-administratiboan izapidetza zuzendu eta koordinatzea,

izapidetzeko eta jakinarazteko egintzak ematea, prozedura ofizios bultzatzea eta buruak berariaz esleitzen dizkion euren eginkizunekin lotutako gainerako zereginak.

5. Osoko bilkurako edo saletako kide guztiak joan behar dira nahitaez bilkuretara, deituak izanez gero, eta nahitaez parte hartu behar dute erabakiak hartzeko edo ebazteko beharrezkoak diren eztabaidetan. Erabakiak bertaratutako guztien gehiengoak hartuko ditu, baina berdinketa gertatzen denean buruak izango du kalitatezko botoa. Bertaratutako guztiak eman behar dute botoa, eta gehiengoarekin ados ez dagoenak boto partikularra eman dezake, idatziz, 48 orduko epean. Boto partikularra espedientean sartuko da, eta erreklamazioaren ebazpenean aipatu egingo da.
6. Osoko bilkuretako edo saletako kide guztiak egingo dituzte, askatasun osoz eta euren erantzukizunaren pean, legez esleitu zaizkien eginkizunak eta buruak agintzen dizkien gainerakoak.

32. artikulua. Bilkuren aktak.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak egiten duen bilkura bakoitzeko akta bat egingo da. Aktan jaso behar dira: bertaratutakoak nor diren, bilkura non egin den eta zenbat iraun duen, aztertu diren espedienteak, bozketen emaitza eta ebazpenen eta gainerako erabakien zehaztapena.
2. Aktak bilkura horretan edo hurrengoan onetsiko dira. Legelari-idazkariak sinatuko ditu eta buruak ontzat emango du; gero, hurrenkeran zenbatuta gordeko dira Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren idazkaritzan.
3. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak egun berean baina osaera ezberdinarekin bilkura egiten badu, azken hau bilkura ezberdintzat joko da. Bilkura bakoitzeko, beraz, akta bat egingo da.

BIGARREN ATALA ERREKLAMAZIOEN ZENBATEKOA ETA METAKETA

33. artikulua. Erreklamazioaren zenbatekoa.

1. Erreklamazioaren zenbatekoa izango da erreklamazioaren xede den egintza edo jarduketaren zenbatekoa. Kuantifikazio ekonomikorik ez duten edo halako bati buruzkoak ez diren egintzak eta zehapen ez-diruzkoak zenbateko zehaztugabekotzat joko dira. Zerga-oinarria edo balioespen-egintza bat aurkaratzen denean eta dagokion likidazioa egin ez bada, erreklamazioaren munta haien zenbatekoa izango da.

Aurrekoa gorabehera, erreklamazioaren zenbatekoa hau izango da kasu hauetan:

- a) Erreklamatzailleak eskatutako itzulketa edo konpentsazio bat gutxitu edo ukatzeko, Administrazioak emandako egintzen aurka aurkeztutako erreklamazioetan, eskatutako itzulketa edo konpentsazioaren eta Administrazioak aitortutakoaren arteko aldea, gehi sartu beharreko zenbatekoa (halakorik egonez gero).
- b) Zergapekoak aitortutako zerga-oinarri negatiboak gutxitzen dituzten egintzen aurkako erreklamazioetan, Administrazioak kendutako zerga-oinarri negatiboa. Administrazio-egintzak, gainera, sartu beharreko zerga-zor bat ezartzen badu, bi zenbateko hauetatik handiena hartuko da: aitortutako zerga-oinarri negatiboa, erregularizatutakoa, edo sartu beharreko zerga-zorra. Zerga-oinarri negatiboa aitortzeaz gainera, itzulketa eskatu bazen, bi zenbateko hauetatik handiena hartuko da: kendutako zerga-oinarri negatiboa edo zenbaki honen a) letran ezarritakoa aplikatu ondoren ateratzen den zenbatekoa.
- c) Enbargo-eginbideen aurkako erreklamazioetan, exekuzioari dagokion zenbatekoa.
- d) Erantzukizuna deribatze erabakien aurkako erreklamazioetan, deribazioaren xede den zenbatekoa.

- e) Zehapenen aurkako erreklamazioetan, aplikatu ahal ziren murrizketak aplikatu aurretik zehapenei zegokien zenbatekoa.
 - f) Zor ez diren sarrerak itzultzeko, autolikidazio bat zuzentzeko edo konpentsazio bat eskatzeko egindako eskabide baten ondorioz hasitako prozeduren ebazpenen aurkako erreklamazioetan, eskatutakoaren eta Administrazioak aitortutakoaren arteko aldea. Eskabideak ez badu aukerarik ematen zenbateko hori zehazteko, zenbateko zehaztugabetzat joko da erreklamazioa.
 - g) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan aipatzen diren zerga-zorraren osagai jakin batzuen aurkako erreklamazioetan, aurkaratutako osagaiaren zenbatekoa, edo, bat baino gehiago bada, osagaien baturarena.
2. Erreklamazioaren xede den administrazio-egintzan zor, oinarri edo balorazio bat baino gehiago edo bestelako egintzak ageri badira, jarri den erreklamazioaren muntatza joko da aurkaratu den zenbateko handieneko zor, oinarri, balorazio edo egintzarena. Izan ere, ezin dira batu agirian jasotzen diren guztiak. Hainbat erabaki dituzten egintzen aurkako erreklamazioen kasuan, haietako batek bakarrik badu kuantifikazio ekonomikoa edo bat bakarrik bada kuantifikazio bati buruzkoa, zenbateko zehaztugabetzat joko dira.
 3. Norbanakoen jarduketan edo ez-egiteen aurkako erreklamazioetan, erreklamazioaren uztia hartuko da kontuan.

34. artikulua. Metaketa.

1. Artikulu honetako hurrengo zenbakietan aurreikusten diren kasuetan jarduketak metatzea edo jarduketan metaketa baliorik gabe uztea erabaki ahal izango da egintza ofizios edo interesdunak eskatuta amaitu baino lehenagoko edozein unetan. Dena den, ez dira inola ere atzera eramango erabakia hartzen den egunerako edo eskabidea aurkezten den egunerako eginda edo hasita dauden jarduketak.
2. Metaketa eskatu dela ulertuko da interesdunak zor, oinarri, balorazio, egintza edo jarduketa bat baino gehiago dituen erreklamazio bakarra aurkezten duenean eta interesdun batzuek idazki berean erreklamazioak dutenean. Horrelako kasuetan, jarduketak metatuko dira, erabaki espresurik hartu beharrik izan gabe, salbu eta Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak banakapena jakinarazten badu gero banakako erreklamazioetan izapidetzeko.
3. Zehapen baten ondoriozko zerga-zorraren aurkako erreklamazioa aurkeztu bada eta zehapena aurkaratu bada, Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak erreklamazio ekonomiko-administrazioak metatuko ditu izapidetu eta ebazteko.

Halaber, erreklamazioak metatu ahal izango dira hurrengo kasuetan:

- a) Interesdun berak tributu berari buruz aurkeztutako erreklamazioak.
 - b) Hainbat interesdunek zerga berari buruz aurkeztutako erreklamazioak, denak espediente beraren haritik sortuak badira edo auzi berdinean aurkezten badituzte eta, gainera, jakinarazpenetarako egoitza bakarra ematen badute.
 - c) Prozesu-ekonomia dela-eta hala erabakitzen denean.
4. Bereizita hasi diren erreklamazio bi edo gehiago metatzen direnean, amaitzeko gutxien falta zaion espedientearen izapidetzea eten egingo da harik eta gainerakoak egoera berean egon arte.
 5. Metatutako erreklamazioak bereizi behar direnean, metaketa baliorik gabe utzi arte egin diren jarduketa guztien kopia alderatua jasoko da espediente berri bakoitzean.

6. Legelari-idazkariaren probidentzia bidez erabakiko da jarduketak metatzea edo metaketa baliorik gabe uztea; erabaki hori izapide-egintza bat izango da eta haren aurka ezin da errekurtsorik jarri.

HIRUGARREN ATALA INTERESATUAK

35. artikulua. Interesatuak.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 238. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, prozeduran interesatu bat agertzea planteatzen denean eta agerikoa ez bada emango den ebazpenaren bidez bere eskubidea edo legebidezko interesa ukitu egingo dela, artikuluko honetako hurrengo paragrafoetan xedatutakoa betez jardungo da: pieza banandua irekiko da.

Prozedurako interesatu guztiek eta izate hori agerikoa ez zaionak alegazioak aurkezteko hamabost egun izango dituzte, epea hasi dela jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan azaltzen den epea amaitzen denean, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak alegatu dena eta espedientean jasotzen den dokumentazioa kontuan hartu eta bidezko ebazpena emango du.

Ebazpen horren aurka Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da.

36. artikulua. Interesatuaren heriotza.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak interesaturen baten heriotzaren berri izaten duenean, legelari-idazkariaren probidentziaren bidez, erreklamazioaren izapidetzea etetea erabakiko du. Halaber, kausadunei jakinaraziko die hildakoaren ordezkoko gisa agertu behar direla jakinarazpena jaso eta hilabetera, eta ohartaraziko die epe horretan agertzen ez badira erreklamazioa iraungi egingo dela eta jarduketak artxibatu egingo direla.
2. Aurreko idatz-zatian aipatu den etendurak irauten duen denbora ez da kontuan hartuko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 245. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako.

II KAPITULUA PROZEDURA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA

LEHENENGO ATALA PROZEDURAREN ANTOLAKETA

37. artikulua. Kopia ziurtatuak eskuratzea.

1. Interesatuak idatziz eskatu ahal izango dute bide ekonomiko-administratiboan jarri den erreklamazioaren edo errekurtsuaren espedientean jasotzen diren alderdi jakin batzuen kopia ziurtatua egiteko.
2. Zerbitzu publikoen jardunaren eraginkortasuna ez oztopatzeko, partikularrek baino ezin dituzte eskatu kopia ziurtatuak. Agirien kopiak banaka eskatuko dituzte, hau da, ezin da egin espediente osoaren edukiari buruzko eskabide orokorra, kontuan izan nahi delako ez bada.
3. Kopia ziurtatuak egiteko eskabidea ukatuko da artikuluko honetako 2. idatz-zatian aurreikusten diren arrazoiak gertatzen direnean edo indarreko arautegiaren arabera isilpean gorde behar den informazioa eskatzen denean.
4. Administrazio Idazkaritzaren burutzak edo legelari-idazkariak emango ditu kopia ziurtatuak, eta espedientean sartuko den dilijentzian adierazi egin beharko da kopiak egin direla, errekurtsogileari jakinarazpena egin zaiola edo kopiak egiteko eskaerari ezetza eman zaiola.

38. artikulua. Agiriak aurkeztu, banakatu eta itzultzea.

1. Interesatuek agiriarekin batera kopia bat ere aurkeztu ahal izango dute, Auzitegiaren Administrazio Idazkaritzak kopia hori alderatu eta jatorrizkoa itzuli diezaien; baina ez da jatorrizkoa itzuliko agiriaren izaera dela-eta erreklamazioa behin betiko ebatzi arte itzuli ezin dela ikusten denean.
2. Erreklamazio ekonomiko-administratiboa amaitzen denean, aurkeztu dituzten frogagiriak banakatzeko eta itzultzeko eska dezakete interesatuek. Auzitegiaren Administrazio Idazkaritzak hartuko du erabaki hori. Nolanahi ere, agiriaren itzulketari eta kopia ziurtatuari buruzko jarduketa horiek guztiak erreklamazioaren espedientean jasoko dira.

39. artikulua. Jakinarazpenak.

1. Interesatuei eragin edo erreklamazio ekonomiko-administratiboei amaiera ematen dieten egintza eta ebazpen guztiak interesatuei jakinarazi beharko zaizkie jakinarazpenetarako eman duten egoitzan.
2. Erreklamazioaren espedientean jakinarazpenak egiteko egoitza bat baino gehiago daudenean, interesatuak eman dituelako, emandako azkena hartuko da aintzat.
3. Erreklamazioaren espedientean ez bada agertzen jakinarazpenak egiteko egoitzarik, interesatuaren zerga-egoitzan egingo dira, baldin eta Auzitegiak azken hori badu.
4. Jakinarazpena posta ziurtatuaren bidez egin daiteke, edo Auzitegiko langileren baten nahiz horretarako gaituta dagoen funtzionario baten bidez.

Hala ere, erreklamatzailerak edo bere ordezkaria Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartzen badira Ogasun eta Finantza Sailak bitarteko elektronikoak erabiliz egiten dituen jakinarazpenak eta komunikazioak arautzen direnei buruzko martxoaren 20ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 50/2012 Foru Dekretuaren 2.5 artikulua aplikatuko da; honen bidez.

5. Artikulu honetan ezartzen ez den guztian Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko III. tituluko II. kapituluaren hirugarren atalean ezarritakoa aplikatuko da.

40. artikulua. Prozeduraren kostuak.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak erreklamatzailerak ausarkeriaz edo fede gaiztoz jardun duela ulertuko du ageriko eskubide-abusua duten edo lege- edo prozedura-iruzurra dakarten erreklamazioak aurkezten edo eskabideak egiten dituenetan, eta prozeduraren kostuak ordaintzeko eskatu ahal izango dio.

Zehazki, nabarmen funtsik gabeak diren erreklamazioak edo errekursoak aurkeztea joko da ausarkeriatzat, eta prozedura luzatzeko baino egiten ez diren eskabideak egiten direnean edo intzidenteak sustatzen direnean joko da fede gaiztotzat. Inguruabar horiek behar bezala arrazoitu beharko dira.

2. Erreklamatzailerak kostuak ordaindu behar dituela xedatzen denean, kostu horien zenbatekoa erreklamazioaren zenbatekoaren %2 izango da, eta, gutxienez, 300 euro. Zenbateko zehaztugabeko erreklamazioen kasuan, kostuen zenbatekoa aipatutako gutxienezko munta hori izango da. Zenbateko horiek foru-agindu bidez eguneratu ahal izango dira.
3. Prozeduraren kostuak ordaintzeko eskatzea erabakitzen denean, Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezartzen den hilabeteko epea emango dio ordaindu behar duen pertsonari aipatu kostuak ordain ditzan. Epe hori amaitutakoan kostuak ordaindu ez badira, premiamendu-prozeduraren bidez ordainaraziko dira.

4. Ez dira prozeduraren kostuak ordaindu beharko uziak osorik edo partez baietsi badira.
5. Ebazpen ekonomiko-administratiboan kostuak ezartzea xedatzen duen erabakiaren aurka ezin izango da administrazio-errekurtsorik jarri.

BIGARREN ATALA PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

41. artikulua. Espedientea eskatzea.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan erreklamazioa jartzeko idazkia jasotzen bada, Administrazio Idazkaritzak hamabost eguneko epean zerbitzu egokiari eskatuko dio espedientea edo aurkaratutako administrazio-egintzaren ondoriozko jarduketak bidaltzeko. Gero, hamabost eguneko epean Auzitegiari bidaliko zaizkio. Aipatu epearen barruan bidali ezin badu, zerbitzua ez betetzeko arrazoiak jakinaraziko ditu.
2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren espedienteen edo jarduketetan, aurkaratu den administrazio-egintza ematean kontuan hartutako aurrekari, adierazpen eta agiri guztiak jasoko dira.
3. Espedientea epe horretan bidaltzen ez bada, erreklamazioak aurrera egingo du Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak dituen aurrekariekin eta, hala dagokionean, interesatuak ematen dituenekin. Era berean jardungo da bidalitako espedienteen arau bidez beharrezkoak diren aurrekari guztiak jasotzen ez direnean.

42. artikulua. Eskumenik eza.

Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak uste badu erreklamazioa ebazteko eskumenik ez duela, eskudun den organoari bidaliko dio espedientea, ofizioz eta arrazoiak emanez; horrez gain, jarduketak artxibatzea erabakiko du, bidezkoa bada.

43. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Errekurso-idazkiak ez baditu betetzen araudi honetako 2. artikuluan ezartzen diren betekizunak, artikuluko horretako 2. idatz-zatian xedatutakoa betez zuzenduko da. Alabaina, interesatuak jakinarazpenetarako helbiderik ematen ez duen kasuetan araudi honetako 39. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

44. artikulua. Espedientea osatzeko izapideak.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak espedientea osatzeko eskatu ahalko du, ofizioz edo interesatu batek eskatu duelako.
2. Interesatuaren eskabidea behin bakarrik egin daiteke eta alegazioak aurkezteko ezartzen den epean aurkeztuko da. Eskabidea idazki bidez egingo da, dagozkion arauen arabera espedienteen sartzeko diren baina bertan ez dauden aurrekariak zehaztuz. Espedientea osatzeko eskabideak alegazioen izapidea etengo du.
3. Auzitegiak eskabideari ezetza ematen badiu alegazioak aurkezteko epea berriz hasiko da, baina soilik interesatuak eskabidea aurkeztean gelditzen zen denbora amaitu arte.
4. Auzitegiak eskabidea onartzen badu, egintza eman duen organoari probidentzia bidaliko dio. Aurrekariak aurkezten direnean edo horiek ez daudelako nahiz espedientea osatzen ez dutelako adierazpena aurkezten denean, dagozkion arautegian ezarritakoa betez, Auzitegiak alegazioak aurkezteko beste epe bat emango du.
5. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 245. artikuluan xedatutakoaren ondorenetarako, prozedura ekonomiko-administratiboak ebazteko epea zenbatzean behar bezala arrazoitutako etenaldi moduan hartuko da alegazioen izapidea eten den unetik berriz hasi den arte edo beste epe bat eman arte igarotakoa.

6. Artikulu honetako 2, 3, 4 eta 5. idatz-zatietan xedatutakoa ez da aplikatuko norbanakoek zergen arloan egindako jarduketa edo alderauzketen aurka jartzen diren erreklamazioetan.

45. artikulua. Espedientea agerian jartzea.

Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren egoitzan jarriko da agerian espedientea. Salbuespen gisa, behar bezala arrazoituz gero erreklamazio-idazkian eskatu ahal izango da espedientea beste auzitegi ekonomiko-administratibo batean agerian jartzea, zein auzitegi ekonomiko-administratibo nahi den eta honen helbidea zein den azalduz. Orduan, Administrazio Idazkaritzaren burutzak zuhurtziaz ebatziko du eskabidea, eta espedientearen kopia bidaliko dio dena delako auzitegi ekonomiko-administratiboari. Honek agerian jarriko du kopia hori, eta alegazioen idazkia egiteko eta froga proposatzeko epea amaitu eta berehala itzuli egingo du. Jakinarazpenak Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak egingo ditu; era berean, foru auzitegi horri aurkeztuko zaizkio alegazioak edo bidaliko zaio espedientea ikuste hutsa ez den beste edozein jarduketa.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 245. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, prozedura ekonomiko-administratiboa ebazteko epea zenbatzean etenaldi arrazoituztat hartuko da administrazio-espedientea, agerian jartzeko asmoz, beste auzitegi batera bidaltzen den unetik agerian jartzen den unera arte igarotako denbora.

46. artikulua. Norbanakoek zergen arloan egiten dituzten jarduketan edo alderauzketen ondoriozko erreklamazioetan agertzea.

1. Erreklamazioaren xede den jarduketa edo alderauzketa egin duen pertsona edo erakundea hilabeteko epean agertu beharko da, berariazko jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasita. Prozedura ostean agertzen bada, horrek ez dio errekurtsogileari kalterik ekarriko eta ez ditu berriz irekiko amaituta dauden izapideak nahiz epeak.
2. Jarduketak, hurrenez hurren, erreklamatzaileri eta erreklamazioaren xede den jarduketa edo alderauzketa egin duen pertsona nahiz erakundeari jarriko zaizkie agerian. Jarduketak hilabetez egongo dira agerian; epe horretan jarduketa bakoitzaren kontrako alegazioak aurkeztu ahal izango dira, horretarako bidezkoak diren frogak emanez edo proposatuz.
3. Ebazpen bidez erabakiko da aurkaratutako jarduketa edo alderauzketa bidezkoa den eta, hala dagokionean, horren zenbatekoa zein den, bidezko eskubide edo betebeharren adierazpenak emanez. Ebazpena bi alderdiei jakinaraziko zaie, eta hauek ebazpenaren aurka bidezkoak diren errekurtsuak jarri ahal izango dituzte.

47. artikulua. Frogak eta txostenak.

1. Prozedura baten gaineko erabakia hartzeko garrantzitsuak diren egitateak egiaztatze aldera zuzenbidean onartutako edozein froga aurkeztu ahal izango da.
2. Interesatuak idazkiekin batera euren eskubideak defendatzeko komeni zaizkien agiri publiko eta pribatuak ere aurkeztu ahal izango dituzte. Hain zuzen ere, irizpen teknikoak, egitateak edo hirugarrenen adierazpenak egiaztatzeko aktak eta, oro har, mota guztietako agiriak aurkeztu ahal izango dira. Prozedurari amaiera emango dion ebazpena ematean Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak erabakiko du horiek zein mailatan diren frogagarriak. Ebazpen horretan ez dira aztertuko ezbaian jarri den gaia ezagutzeko garrantzitsuak ez diren frogak, nahikoa izango da horiek banan-banan aipatzea.
3. Eskatu diren frogen burutzapena ukatu ahal izango da ebazpena emateko beharrezkoak ez direnean edo erreklamazioan eskatutakoen gainean erabaki bat hartzeko garrantzirik ez duten egitateei buruzkoak direnean; halaber, lekuko-frogen kasuan, froga burutu daitekeen eta burutzea bidezkoa bada baloratuko da.

Nolanahi ere, ukatu diren frogak horiek geroago burutzea agindu daiteke.

4. burutzapena onartzen edo ukatzen duten egintzak izapide-egintza huts izango dira.

5. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ofizioz erabaki dezake frogak burutzea, baita ebazpena emateko beharrezkoak diren txostenak eskatu ere. Horrelako kasuetan, froga burutu denean edo txostena jaso denean, interesatuei espedientea erakutsiko zaie hauek hamabost eguneko epean (epea ireki dela jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita) egokitzen jotzen dutena alega dezaten.

48. artikulua. Intzidentezko arazoak.

Intzidentezko arazo gisa hartu ahal izango dira auziaren muinekoak ez izan arren auziarekin edo prozeduraren baliozkotasunarekin zerikusia duten alderdiak, baldin eta erreklamazioa izapidetu ahal izateko ezinbestekoa bada haiek aurretik ebaztea eta auziaren muinari buruzko erabakia hartu arte itxaroterik ez badago.

Intzidentezko arazoak hamabost egunetan aztertuko dira, horiek eragin dituen egitatea edo egintza sinesgarriro agerrarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Auzitegiak intzidentea amaitzeko hartzen duen ebazpenaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri. Erreklamazioaren ebazpena jasotzen duenean, interesdunak berriz jarri ahal izango du ezbaian arazo intzidentala, ebazpenaren aurka dagokion errekurtsua jarritz.

48 bis. artikulua. Arazo prejudiziala

1. Auzitegiak ofizioz erabakitzen duenean Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 242.3 artikuluan ezarritako arazo prejudizialeko bat planteatzea, 15 eguneko epea emango die erreklamatzailerari eta aurkaratutako egintza eman zuen organoari, planteamendu horren bidez kotasunari buruzko alegazioak aurkez ditzaten. Alegazioak aurkezteko epea emateko idazkiarekin batera, Auzitegiak arazo hori planteatzeko dituen arrazoiei buruzko mozio arrazoitu bat bidaliko zaie. Erreklamatzailerak eskatu badu arazo prejudiziala planteatzeko, epe bera emango zaio egintza eman duen Zerga Administrazioari.

Arazo prejudiziala planteatu ondoren, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak beharrezkotzat jotzen badu alegazio osagarriak edo arazo prejudizialaren birformulazioak aurkeztea, edo planteamendu horretan atzera egitea, 10 eguneko epea emango die bai erreklamatzailerari, bai egintza eman duen Zerga Administrazioari, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten. Halaber, erabakitakoari buruzko mozio arrazoitu bat helaraziko die.

2. Arazo prejudiziala planteatu eta gero, Auzitegiak inguruabar hori jakinaraziko die erreklamatzailerari eta egintza eman duen Zerga Administrazioari, baita prozedura ekonomiko-administratiboa eten dela ere. Halaber, inguruabar horien berri emango zaie erreklamatzailerari eta egintza eman duen Zerga Administrazioari beste prozedura ekonomiko-administratiboak direnean, baldin eta haiek ebazteko arazo prejudizialaren emaitza jakin behar bada, eta arazoa planteatu den prozedurakoak ez badira.
3. Organo ekonomiko-administratibo eskudunak auziaren ebazpena jaso duela ulertuko da epaiaren gaztelaniazko bertsioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean. Erreklamatzailerari eta egintza eman duen Zerga Administrazioari etetea kendu izanaren berri emango zaie arazo prejudiziala planteatzearen ondorioz eten den prozedura bakoitzeko.

49. artikulua. Berrikuspena luzatzea.

Auzitegiak bidezkotzat jotzen badu interesatuek aipatu ez duten konturen bat aztertu eta ebaztea, prozeduran agertu direnei azalduko die eta hamabost eguneko epea emango die alegazioak egiteko. Epearen hasiera jakinarazi eta biharamunetik zenbatuko da epe hori.

HIRUGARREN ATALA DEUSEZTATZE-ERREKURTSOA

49 bis artikulua. Deuseztatze-errekurtsoa

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 245 bis artikuluan aipatzen den deuseztatze-errekurtsoa ebazteko eskumena errekurritutako erabakia edo ebazpena eman duen organoari dagokio.»

LAUGARREN ATALA BERRIKUSTEKO APARTEKO ERREKURTSOA

50. artikulua. Berrikusteko aparteko errekurtsoa.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 246. artikuluan prozedura horretarako ezartzen diren guztiak aplikatu ahal izango dira berrikusteko aparteko errekurtsotan.

V TITULUA XEDAPEN BEREZIAK

I KAPITULUA ERREKURRITUTAKO EGINTZAREN ETENDURA

LEHENENGO ATALA BERMERIK GABEKO ETENDURA

51. artikulua. Bermerik gabeko etenduraren kasuak.

1. Berraztertze errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa garaiz eta behar den moduan jarri gero, aurkaratutako egintzaren betearazpena eten egingo da, etendura eskatu edo bermeak jarri beharrik izan gabe, honako kasu hauetan:
 - a) Zerga-zorra borondatez ordaintzeko epean bada edo premiamendu-probidentziaren aurkako errekurtsoa jarri bada, betiere, kasu bietan, borondatezko epea amaitzen denean ordaintzeko dagoen zorraren zenbatekoa 20.000 euro edo gutxiago bada. Nolanahi ere, zenbateko hori Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru-agindu bidez alda daiteke.
 - b) Zergen arloko zehapena aurkaratzen bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 219. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera.
2. Zerga-bilketa Zerbitzuak automatikoki etengo du aurkaratutako egintzaren betearazpena, inolako bermerik gabe, interesatuak ondoko kasuetako bat gertatu dela frogatzen duenean: bere kalterako izan den oker material, aritmetiko edo egitatezko bat gertatu dela zorra zehaztean; zorra jadanik ordainduta, barkatuta, konpentsatuta, geroratuta edo etenda dagoela; Zerga Administrazioak zorra ordaintzeko eskatzeko duen ahala preskribatuta dagoela.
3. Berriazko arauen batean aintzatetsita dauden etendura kasuak bertan ezarritakoaren bidez arautuko dira.
4. Halaber, erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzen denean, aurkaratutako egintzaren betearazpena bermerik jarri gabe eten ahal izango da kapitulu honetako laugarren atalean aipatutako kasuetan.

52. artikulua. Bermerik gabeko etenduraren iraupena.

1. Berraztertze errekurtsotan, bermerik gabeko etendurak ondoreak sortuko ditu errekurtsoa bideratzen den bitartean, eta gero erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzen bada, etenduraren ondoreak iraun egingo dute prozedura ekonomiko-administratiboan.

2. Administrazio bidean gertatutako etendura mantendu egingo da, baldin eta zergadunak Zerga Administrazioari jakinarazten badio Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epearen barruan errekurtsio hori sustatu duela eta etendura eskatu duela. Etendurak epai-organoak hartaz zerbait erabaki arte iraungo du.

BIGARREN ATALA BERMEDUN ETENDURA AUTOMATIKOA

53. artikulua. Bermedun etendura automatikoaren printzipio orokorrak.

Berraztertze bidean edo bide ekonomiko-administratiboan aurkaratutako egintzaren betearazpena automatikoki etengo da interesdunak hala eskatzen duenean, baldin eta bermatuta geratzen badira —atal honetan eta kapitulu honetako bosgarren atalean ezarritako eran— egintza horren zenbatekoa, etendurak sorrarazten dituen berandutza- korrituak eta bermea exekutatuz gero egon litezkeen errekarquak

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 223.1 artikuluan araututako betebeharrak lotuen kasuan, aurkeztutako bermeak ondorioak izango ditu itzulketa lotua eragin duen errekurtsioa osorik edo partez baiestearen ondorioz itzuli behar diren zenbatekoetan.

54. artikulua. Etendura automatikorako bermeak.

1. Etendura automatikoa lortzeko berme hauek behar dira soil-soilik:
 - a) Diruaren edo balore publikoen gordailua.
 - b) Kreditu erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abal edo fidantza solidarioa, edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria.
 - c) Administrazio publikoek aintzatetsitako kredituak.
2. Zerga-bilketa Zerbitzuak izango du eskumena etenduraren eskabidea izapidetzeko, eta zerbitzu horretako buruak ebatziko du.
3. Erreklamazio ekonomiko-administratiboaren kasuan, ukapenaren aurka intzidentea aurkeztu ahal izango da, zein egintza eteteko eskatu den, hari dagokion erreklamazio ekonomiko-administratiboan.

Intzidenteari amaiera ematen dion ebazpenari ezin izango zaio errekurtsorik egin.

55. artikulua. Bermedun etendura automatikoaren eskabideari erantsi beharreko agiriak.

Etenduraren eskabideari beti erantsi behar zaio Zerga-bilketa Zerbitzuaren esku jarritako bermea formalizatzeko agiria. Eskabidearekin batera agiri hori aurkezten ez bada, eskabidea aurkeztu gabekotzat joko da ondore guztietarako. Halakoetan eskabidea artxibatu egingo da eta hori interesatuari jakinaraziko zaio.

HIRUGARREN ATALA BESTELAKO BERMEAK DITUEN ETENDURA

56. artikulua. Bestelako bermeak dituen etendura.

1. Bestelako bermeak dituen etendura eskatu daiteke, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 223. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako etendura hain zuzen, Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioan erreklamazio ekonomiko-administratiboak aurkezten direnean. Eskabidea auzitegi horretan aurkeztuko da, etendura automatikorako aurreikusitako bermeak jartzerik ez dagoela frogatzen duten agiriekin batera. Eskabidean zehatz azalduko dira eskaintzen diren bermeen izaera eta ezaugarriak, bermea osatuko duten ondasun edo eskubideak eta behar adinako titulazioa duen peritu batek egindako balorazioa.

2. Eskabidea Zerga-bilketa Zerbitzuari igorriko zaio eta berak izapidetuko du. Ebatzi berriz, Zerga-bilketako Zuzendariordetzak ebatziko du. Organo horrek halaber eskumena izango du bermeak ordeztan eta kitatzen diren kasuetan, eta berariazko ebazpena eman beharko du etendura onartu edo ukatzeko, jarri behar diren bermeak zehaztuta. Erabaki horiek interesatuari jakinaraziko zaizkio, eta, bidezkoa denean, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboari ere bai.

Ukapenaren aurka intzidentea aurkeztu ahal izango da, zein egintza eteteko eskatu den, hari dagokion erreklamazio ekonomiko-administratiboan. Intzidenteari amaiera ematen dion ebazpenari ezin izango zaio errekurtsorik egin.

3. Eskaera aurkezten denean zorra borondatezko epealdian badago, errekurritutako egintzari dagokion bilketa prozedura eten egingo da kautelazko neurri gisa. Zorra ordainarazteko epealdian, etendura-eskaerak ez du eragotziko Administrazioak bere jarduketekin jarraitzea; nolahi ere, gerta liteke eskaeraren ondoren egindakoak deuseztatu behar izatea, azkenean etendura gertatzen bada.
4. Etendura-erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean formalizatu behar da bermea; erabakia ez du ondorerik izango bermea jarri ezean. Epe hori bermerik formalizatu gabe igarotzen bada, ondorerik gabe geratuko da etendura-erabakia eta araudi honetako 65. artikuluan adierazitakoa gertatuko da.

LAUGARREN ATALA

BERMEAK JARRI BEHARRETIK ERABAT EDO ZATI BATEAN SALBUETSITAKO ETENDURA

57. artikulua. Bermeak jarri beharretik erabat edo zati batean salbuetsitako etendura.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboetan, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak eskumena izango du bermeak jarri beharretik erabat edo zati batean salbuetsitako etenduren eskaerak izapidetu eta ebazteko. Horrelako eskaerak egin daitezke kalteak konpongaitzak edo konponezinak direnean, bai zerga-zorra edo zenbateko likidoa dagoen kasuetan, bai zerga-zorra edo zenbateko likidoa xede ez dituzten egintzen kasuan.
2. Etendura aparteko agirian eskatu beharko da eta interesatuak egokitzat jotzen dituen agiriak erantsiko dizkio eskabideari, etendura onartzeko baldintzak betetzen direla frogatzeko. Bermeak jarri beharretik zati batean salbuetsitako etendura eskatzen denean, eskaintzen diren bermeak zeintzuk diren azalduko da, aurreko artikuluko lehenengo idatz-zatian xedatutakoaren arabera.
3. Eskabidea aztertu ondoren, araudi honetako 2. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako zuzenketa egingo da, behar izanez gero. Zuzenketa egiteko agindeiari interesatuak garaiz erantzun arren, ikusi diren akatsak konpondu gabe utzi dituela irizten bazaio, etenduraren eskabidea ez da izapidetzeko onartuko eta hurrengo idatz-zatian adierazitako ondoreak sortuko dira.
4. Akatsak zuzendu ondoren, bidezkoa denean Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak eskabidea izapidetzeko onartu ala ez erabakiko du. Ez du onartuko baldin eta espedientera bildutako agirietatik ezin bada ondorioztatu kalte konpongaitz edo konponezinen zantzurik dagoenik.
5. Etendura eskatzen denean zorra borondatezko epealdian badago, eskabidea aurkeztuz gero (egintzaren betearazpenak kalte konpongaitz edo konponezinak eragin ditzakeela argudiatuta eta behar diren agiriak erantsita), eten egingo da bilketa prozedura, kautelazko neurri gisa, harik eta Auzitegiak etendura-eskaera izapidetzeko onartu ala ez erabaki arte.

Eskaera izapidetzeko onartzeak etendura ekarriko du eskaera aurkezten den unetik. Onarpen hori interesatuari eta zerga-bilketaren arloko organo eskudunari jakinaraziko zaie.

Eskaera izapidetzeko onartu ezean, etendura-eskaera aurkeztu gabekotzat joko da ondore guztietarako.

Eskaera ez onartzeko erabakia interesatuari jakinarazi beharko zaio eta zerga-bilketaren arloko organo eskudunari haren berri eman beharko zaio. Eskaera izapidetzeko ez onartzeko erabakiari errekurtsua egin ahalgo zaio administrazio bidean.

58. artikulua. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak etendura-eskaera izapidetu eta ebaztea.

1. Eskaera-etendura izapidetzeko onartu eta gero, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak Zerga-bilketa Zerbitzuari txostena eskatuko dio, eskaintako bermeak juridikoki eta ekonomikoki nahikoak diren eta bermetzat eskain daitekeen beste ondasunik ba ote dagoen adieraz dezan. Zerga-bilketa Zerbitzuak beren beregi adierazi beharko du eskaintako ondasunak nahikoak diren eta bermetzat eskaintzeko moduko beste ondasunik badagoen, bai salbuespena erabatekoa denean bai partziala denean, eta berariaz adierazi beharko du aurkaratutako egintzaren inguruan, alegia, betearazpena eten nahi zaion egintzaren inguruan, kautelazko neurririk hartu den. Nahikotasun juridikoa dela eta, irizpena eskatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Lege Aholkularitzako Zerbitzuari.
2. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak berariazko ebazpena eman beharko du etendura onartu edo ukatzeko. Etendura salbuespen partzialarekin onartzen denean, erabakian zehaztu egingo da zeintzuk berme jarri behar diren.

Erabaki horiek interesatuari eta zerga-bilketarako organoari jakinaraziko zaizkie.

3. Ukapenaren aurka Administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da.
4. Etendura berme partzialarekin onartzen denean, bermea zerga-bilketako organoaren aurrean jarri beharko da. Berak onartu egingo du, bidezkoa bada, eta araudi honetako 56. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatietan xedatutakoa aplikatuko da.
5. Etendura erabakitzeko eskumena duen organoak uste izaten badu etendurari buruzko ebazpena aldatu behar duela, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 223. artikuluko 3. idatz-zatian azaltzen diren kasuetan, hala jakinaraziko dio interesatuari, bere eskubidearen alde komenigarritzat jotzen dituen alegazioak egin ahal ditzan hamabost eguneko epean, epe horren hasiera jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Aldarazpen-izapide horren inguruan emandako ebazpenaren aurka intzidentea jarri ahal izango da, zein egintzaren etendura eskatzen den, hari dagokion erreklamazio ekonomiko-administratiboan. Erreklamazioan intzidenteari amaiera ematen dion ebazpenari ezin izango zaio errekurtsorik egin.

BOSGARREN ATALA BERMEEKIN ETETEARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

59. artikulua. Betekizunak eta ondoreak.

1. Aurretik edo aldi berean aurkeztutako errekurtsu bati edo erreklamazio ekonomiko-administratibo bati lotuta ez dauden etete-eskaerak ez dute ondorerik izango, eta horretarako ez da beharko ez onartzeko berariazko erabakirik.
2. Bermekin eteteko eskaerak aurkeztu den egunetik sortuko ditu ondoreak. Interesatuari horren berri eman behar zaio.
3. Bermeak hauek estali behar ditu: aurkaratutako egintzaren zenbatekoa, etendurak sorrarazten dituen berandutza-korrituak eta bermea exekutatu gero egon litezkeen errekarquak.

4. Bermeak hartu beharreko korrituen zenbatekoa errekurtsua edo erreklamazioa izapidetzeko gehieneko epealdiari dagozkion korrituena izan behar da. Berraztertzeke izapidetan eskatutako etendurak erreklamazio ekonomiko-administratiboaren izapidera arte irauten badu, bi epealdietako zenbatekoa bermatu behar da.
5. Zorra norberaren borondatez ordaintzeko epealdian, etendura eskatzen bada bermeak eskainita, horrek errekurritutako egintzari dagokion zerga-bilketako prozeduraren kautelazko etendura ekarriko du, harik eta behin betiko erabakia hartu edo eskabidea onartezina dela adierazi arte.
6. Zorra ordainarazteko epealdian, etendura-eskaerak ez du eragotziko Administrazioak bere jarduketekin jarraitzea; nolana ere, gerta liteke eskaeraren ondoren egindakoak deuseztatu behar izatea, azkenean etendura gertatzen bada. Hala ere, etendura-eskaera premiamendu probidentzia jakinarazi aurretik egiten bada, organo eskudunak zerga-bilketako prozedura kautelaz eten ahal izango du, harik eta eskaera ebatzi arte.
7. Etendurarako jarri beharreko bermeak Zerga-bilketa Zerbitzuaren esku geratuko dira, inoiz atxiki behar balitu ere.

60. artikulua. Eskabidea ongitzea.

Bermea formalizatzen duen agirian zerbait ongitzeko eskatzen bada araudi honetako 2. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, eta eskatutakoa betetzen bada, zerga-bilketako organoak etendura erabakiko du eta honek eskabidea aurkeztu denetik izango ditu ondoreak.

Etendura-erabakia interesatuari jakinarazi behar zaio. Eskabidea ongitzeko agindeiari interesatuak epearen barruan erantzun arren, akatsak ez badira ongituztat jotzen, etendura ukatuko da.

61. artikulua. Bermedun etenduraren ondoreak luzatzea.

Berraztertzeke errekurtsuan bermedun etendura aplikatzeko eskatzen bada, haren ondoreak errekurtsu horri bakarrik eragingo diote.

Interesatuak eskatuz gero, etendurak ondoko erreklamazio ekonomiko-administratiboa ere har dezake, baldin eta aurkeztutako bermeak indarrean eta eraginkortasunarekin jarraitzen badu. Administrazio bidean gertatutako etendura mantendu egingo da, baldin eta zergadunak

Zerga Administrazioari jakinarazten badiu Administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko epearen barruan errekurtsu hori sustatu duela eta etendura eskatu duela. Etendurak epai-organok hartaz zerbait erabaki arte iraungo du.

62. artikulua. Oniritzen partziala.

Errekurtsu edo erreklamazio ekonomiko-administratibo bati partzialki oniritzi ondoren beste likidazio bat egin behar bada, aurkeztutako bermea haren emaitzako kuota edo kopurua eta berandutza korrituak ordaindu beharri lotuta geratuko da (korrituak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko 6. idatz-zatian ezarri den bezala kalkulatu behar dira).

63. artikulua. Etendura ukatzea.

1. Bermedun etendura zorra norberaren borondatez ordaintzeko epealdian eskatzen bada, ukapenaren jakinarazpenarekin batera sarrera egiteko epealdia hasiko da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran ezarri dena. Sarrera epealdi horretan eginez gero, norberaren borondatez sartzeko epealdiaren mugaegunaren biharamunetik ukapen-erabakia hartu arte sortutako berandutza korrituak likidatuko dira
2. Etendura zorra ordainarazteko epealdian eskatzen bada, ukapen-erabakiaren jakinarazpenak premiamendu prozedura abiaraziko du, Zergei buruzko Foru Arau

Orokorreko 171. artikuluan ezarri den bezala, dagoeneko abiatuta ez badago. Etendura ordaintzeko aparteko epealdia, Zergei buruzko Foru Arau orokorreko 60. artikuluko 3. idatz-zatian ezarria, amaitu baino lehen eskatzen bada, ukapenarekin batera hamabost eguneko epea emango zaio eskatzaileari zorra sar dezan, eta epealdi horretan ez zaio eskatuko premiamentu errekarurik.

3. Berraztertze errekurtsoaren bidezko etendura ukatzen duten ebazpenen aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa jar daiteke.

64. artikulua. Etendura-ebazpena aldatzea.

Etendura erabakitze eskumena duen organoak etendura-ebazpena aldatu behar duela irizten badio, araudi honetako 58. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoa beteko da.

65. artikulua. Bermerik ez jartzearen ondoreak.

Bi hileko epea bermerik formalizatu gabe igarotzen bada, ondore hauek sortuko dira:

- a) Etendura-eskaera borondatez ordaintzeko epealdian aurkeztu bada, bermea formalizatzeko emandako epea amaitu eta biharamunean hasiko da ordainarazteko epealdia, eta premiamentu prozedurari ekin beharko zaio Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 171. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako moduan. Horrelakoetan bidezkoa izango da borondatez ordaintzeko epealdia mugaeguneratu eta hurrengo egunetik bermea formalizatzeko epearen azken egunera arte sortutako berandutza korrituak likidatzea, Zergei buruzko Foru Lege Orokorreko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera gero sortzen diren korrituen kalterik gabe.
- b) Etendura zorra ordainarazteko epealdian eskatzen bada, premiamentu prozedura abiaraziko da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 171. artikuluko 1. idatz-zatian ezarri den bezala, dagoeneko abiatuta ez badago.

II KAPITULUA EBAZPENAK BETEARAZTEA

LEHENENGO ATALA ARAU OROKORRAK

66. artikulua. Betearazpena.

1. Berraztertze prozeduretako ebazpen-egintzak dauden bezala betearaziko dira, salbu eta hasieran aurkaratutako egintzaren betearazpena etetea erabaki denean eta etendura hori beste prozedura batzuetan mantentzen denean.
2. Errekurtso bat edo erreklamazio ekonomiko-administratibo bat betearaztearen ondoriozko egintzak hilabeteko epean jakinarazi behar dira, ebazpena bera betearazteko eskumena duen organoaren erregistroan sartzen denetik hasita.

Ofizioz edo interesdunak eskaturik, hilabeteko epean, Administrazioak zergapeko berari dagokion betebeharrak lotua —errekurtsoaren edo erreklamazioaren xedearekin lotura duena— erregularizatuko du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 232.3 eta 244.7 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrira.

Betearazpen-egintzak ez dira izango aurkaratutako egintza eragin duen prozeduraren parte.

Ebazpenak betearazteko, administrazio zuzenbideko xedapen orokorretan jasotako eskualdagarritasunari buruzko arauak, egintza akastunak bihurtzeari buruzkoak, egintza eta izapideen kontserbazioari buruzkoak eta baliozkotzeari buruzkoak aplikatuko dira.

3. Auziaren funtsari buruz ebaztearen ondorioz erabat edo zati batean deuseztatzen bada aurkaratutako egintza, deuseztasunaren kausak ukitzen ez dituen egintza eta izapideak mantendu egingo dira, haien edukiari eutsiko zaio oso-osorik eta berandutza korrituak eskatuko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Partzialki oniritzeko ebazpenak zerga-kuota, sartu beharreko kopurua edo zehapena aldatzen ez duenean, aurkaratutako egintza zati batez aldatuz betearazi ahal izango da ebazpena; halaber, modu berean aldatuko dira zati batez deuseztatutako egintzaren ondoriozkoak. Horrelakoetan, hasierako egintzak iraun egingo du baina ebazpenaren edukiaren arabera zuzenduko da, eta aurretik egindako zerga-bilketako egintzak mantendu egingo dira, baina egindako atxikipen eta enbargoen zenbatekoak egokitu egingo dira, bidezkoa bada.

Errekurritutako egintzaren zenbateko osoa edo zati bat sartu bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 75. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako konpentsazioa egingo da, bidezkoa bada.

4. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, formazko akatsen bat egonik auziaren funtsari buruz ebazpena ematea bidezkotzat jotzen ez denean, jarduketetan atzera egiteko aginduko da, deuseztatutako egintzaren haritik gero etorritako guztiak deuseztatuko dira eta, bidezkoa bada, bermeak edo bidegabeki sartutako kopuruak itzuli egingo dira, berandutza korritu eta guzti.
5. Ebazpenak errekurtsio edo erreklamazioari erabat oniritzen badio eta beste egintza baten beharrik ez badago, honela betearaziko da ebazpena: deuseztatutako egintzaren ondoriozko egintza guztiak deuseztatuko dira eta, bidezkoa bada, bermeak edo bidegabeki sartutako kopuruak itzuliko dira, berandutza korrituak gehituta.
6. Ebazpen administratibo edo judizialak aurkaratutako egintza berresten badu eta hori etenda egon bada, zerga-bilketako organo eskudunak ordaintzeko epea jakinaraziko du.

Ebazpen administratiboak aurkaratutako egintza berresten badu eta hori borondatez ordaintzeko epealdian etenda egon bada, ebazpenaren jakinarazpenak hasiera emango dio Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran aurreikusitako sarrera-epeari.

Etendura zorra ordainarazteko epealdian izan bada, ebazpenaren jakinarazpenak bidezkotu egingo du premiamendu prozeduraren jarraipena, premiamendu probidentzia etendurak ondoreak sortu dituen egunaren aurretik jakinarazi bada, edo haren hasiera, hala ez bada. Etenaldian sortutako berandutza korrituen likidazioa honela egingo da:

- a) Etendurak borondatezko epean sortu baditu ondoreak, Zerga-bilketa Zerbitzuak borondatezko epealdiaren mugaegunaren biharamunetik gaitziritzen erabakiaren egunera arte sortutako berandutza korrituak likidatuko ditu. Etendurak berraztertze errekurtsioan bakarrik izan baditu ondoreak eta errekurtsio horren ebazpenari erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri bazaio, borondatez ordaintzeko epealdiaren mugaegunaren biharamunetik berraztertze errekurtsioa ebatzi den egunera arte sortutako berandutza korrituak likidatuko dira.
- b) Etendurak ordainarazteko epealdian izan baditu ondoreak, zerga-bilketako organoak etenduraren ondoreak hasi ziren egunetik gaitziritzen erabakiaren egunera arte sortutako berandutza korrituak likidatuko ditu.

Etendurak berraztertze errekurtsioan bakarrik izan baditu ondoreak eta errekurtsio horren ebazpenari erreklamazio ekonomiko-administratiborik jarri ez bazaio, etendurak ondoreak izan zituen egunetik berraztertze errekurtsioaren ebazpenaren egunera arte sortutako berandutza korrituak likidatuko dira.

7. Emandako bermea itzultzea bidezkoa dela egiaztatuz gero, organo eskudunak ofizioz itzuliko du, interesatuak eskatu behar izan gabe.

8. Berrikuspen prozedura bereziak ebatzen dituzten erabakiak betearazteko, aurreko idatz-zatietan xedatutakoa aplikatuko da.

67. artikulua. Etendurarako jarritako bermeen murrizketa proportzionala.

1. Jarritako errekurso edo erreklamazioari partzialki oniritzi eta ebazpena aurreko artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera betearazterik ez dagoenean, interesatuak emandako bermearen murrizketa proportzionalerako eskubidea izango du, hala eskatzen badu.

Horretarako, organo eskudunak, hamabost eguneko epean, interesatuak eskabidea aurkezten duenetik hasita, errekurso edo erreklamazioaren ebazpenaren betearazpenak sortutako betebeharraren zenbatekoa kalkulatu du; horrela zehaztuko dira bidezkoa den murrizketaren zenbatekoa eta, ondorioz, iraun behar duen bermearena.

2. Hala ere, aurreko bermeak bere horretan dirauen egintza, zor edo betebeharraren zenbatekoaren ordaintetari lotuta jarraituko du, eta indarrean segituko du harik eta bere horretan dirauen egintza, zor edo betebeharraren zenbatekoa estaltzen duen beste berme bat formalizatu arte.
3. Behinola etendura erabaki zuten organoek izango dute eskumena bermea ordeztzeko.

BIGARREN ATALA EBAZPEN EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK BETEARAZTEKO ARAU BEREZIAK

68. artikulua. Ebazpena betetzea.

1. Interesduna ez badago ados ebazpena betearazteko emandako egintza berriarekin, errekursoa aurkeztu ahal izango du betearazpenaren aurka, hilabeteko epean, betearazpen-egintza jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatuta. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ebatziko du errekursoa.
2. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren ebazpenak betearazi behar dituzten organoek ebazpenak argitzeko eskatu ahal izango diote Auzitegiari.

69. artikulua. Ebazpen ekonomiko-administratiboen luzapena.

1. Jarritako erreklamazioaren ebazpenak ondoreak izan ahalko ditu erreklamazioa jarri ondoko egintza, jarduketa edo alderauzketa guztietan, baldin eta erreklamazioa jartzeko idazkian aipatutakoaren berdin-berdinak badira alderdi guztietan, eta administrazio bidean irmoak ez badira.
2. Horretarako, erreklamatzailerak edo hasierako erreklamazioan interesa duenak goian aipatu diren egintza, jarduketa edo alderauzketak jasorik dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.
3. Ebazpena eman duen osoko bilkurak edo salak hura betearazteko erabakia hartuko du. Bertan aipatuko dira ebazpenaren eraginpeko egintza, jarduketa edo alderauzketa guztiak, bidezko errekursoei buruzkoak barne direla.

HIRUGARREN ATALA EBAZPEN JUDIZIALAK BETEARAZTEKO ARAU BEREZIAK

70. artikulua. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren epaien ondoreen luzapena.

1. Zerga Administrazioak jaramon egingo die Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetu duen Legeko 110. artikulua arabera egiten zaizkion agindeiei.

2. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak bakarrik izango du eskumena agindei horiei jaramon egiteko, luzatu nahi den epai irmoak emandako erabaki edo ebazpena deuseztatu badu, izapideen edo prozedura ekonomiko-administratiboaren akatsen ondorioz.

III KAPITULUA BERMEEN KOSTUA ITZULTZEA

LEHENENGO ATALA BERMEEN KOSTUAREN ITZULKETAREN NORAINOKOA

71. artikulua. Aplikazio-eremua.

Bidegabekotzat jo den egintza baten betearazpenaren etendura lortzeko jarritako bermeen kostuen itzulketak bermea formalizatu, mantendu eta kitatzeko behar diren kostuak hartuko ditu barruan.

Administrazio ebazpenek edo epaiek aurkaratu den egintza partzialki bidegabekoa dela adierazten dutenenean, bermearen kostuen zati proportzionala itzuli beharko da. Hurrengo artikuluetan ezarritako prozedura aurrean aipatutako kostuen itzulketarako izango da soilik.

Hurrengo artikuluetan ezarritako prozedura gorago aipatutako kostuak itzultzeko baino ez da aplikatuko. Hala ere, ordaindu beharra duenak, bidezkoa baderitzo, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko IV. tituluaren ezarritako ondare-erantzukizunari buruzko prozedura eskatu ahal izango du beste kostu edo kontzeptu batzuetarako, horretarako ezarritako inguruabarrak baldin badaude.

72. artikulua. Kostua itzuli behar den bermeak.

Bermeen kostuaren itzulketarako eskubideak barruan hartuko ditu jarraian aipatuko diren bermeak, arautegi aplikagarriaren arabera ematen badira eta onartzen baldin badira:

- a) Kreditu erakundeek edo elkarrekiko bermerako sozietateek emandako abal edo fidantza solidarioak.
- b) Kauzio-aseguruen ziurtagiriak.
- c) Ondasun higigarrien eta higiezinaren hipotekak
- d) Edukitzaren lekualdaketadun bahiak edo lekualdaketarik gabekoak.
- e) Administrazioak edo auzitegiek onartutako beste edozein.

73. artikulua Emandako bermeen kostua zehaztea.

1. Honako partida hauek sartuko dira bermeen kostuan:

- a) Abal edo fidantza solidarioetan eta kauzio-aseguruen ziurtagirietan, kreditu erakundeari, elkarrekiko bermerako sozietateari edo aseguru erakundeari prima edo komisio gisa benetan ordaindutako kopuruak, eta abala, fidantza edo ziurtagiria formalizatu, mantendu eta kitatzeko gastuak. Zerga Administrazioak itzuli beharreko gastuak, berriz, bermeak eteteko eraginkortasuna izan dezan behar direnak izango dira. Erabateko onirizpena ematen denean, Diruzaintza Zerbitzuak abal edo aseguru agiriak emango dizkie kreditu edo aseguru erakundeei. Onirizpen partziala ematen denean, amaierako data ez da izango hilabeteko epea igaro ostekoa, errekurso edo erreklamazioaren ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera zenbatuta.
- b) Aurreko artikuluan aipatutako hipoteka eta bahietan, horien kostuak barruan hartuko ditu ondoko kontzeptuengatik ordaindutako kopuruak:

1.a. Fede-emaile publikoak esku hartzeko gastuak.

- 2.a. Erregistroko gastuak.
 - 3.a. Bermea jartzeak eta, hala denean, hura kitatzeak zuzenean sorrarazten dituzten zergak.
 - 4.a. Araudi honetako 56. artikuluan aipatutako ondasunak bermetzat eskaintzen direnean horiek tasatu edo baloratzeko egiten diren gastuak.
 - c) Administrazioak edo auzitegiek aurrean aipatu diren bermeak ez, beste batzuk onartzen dituztenean, horien kostuen itzulketa onartuko da, bakar-bakarrik, bermeak formalizatu, mantendu eta kitatzeko zuzenean egindako gastu egiaztatuei dagokienez.
 - d) Bermea jartzeko diru-gordailua egiten denean, itzulketa onartuko da gordailua eratzeko kostuei dagokienez bakar-bakarrik.
2. Dena dela, kostu horiek sortu diren egunetik (behar bezala egiaztatuta) itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen duen erabakia hartzen den egunera arte sortutako berandutza korrituak ordainduko dira.

BIGARREN ATALA JARRITAKO BERMEEN KOSTUA ITZULTZEKO PROZEDURA.

74. artikulua. Itzulketa erabakitzeke eskumena duten organoak.

Zerga-bilketa Zerbitzuko burutzari dagokio bermeen kostua itzultzeko eskaeren ondoriozko espedienteetan prozedura izapidetu eta ebazpen proposamena egitea, eta Zerga-bilketako Zuzendariordetzari, berriz, espediente horiek ebatzea.

75. artikulua. Hasiera.

1. Interesatuaren eskariz hasiko da prozedura. Interesatuak idazkia aurkeztu beharko dio ebatzeko eskumena duen organoari. Idazkiak araudi honetako 2. artikuluan aipatutako edukia izango du.
2. Itzulketa-eskaerari datu edo agiri hauek erantsiko zaizkio:
 - a) Aurkaratutako administrazio egintza, betearazpena eten zitzaila, erabat edo partzialki bidegabekotzat jotzen duen ebazpen administratibo edo judizialaren erreferentzia.
 - b) Bermeen kostuaren zenbatekoa, berreskuratu nahi den zenbatekoa alegia, egiaztatzeke agiriak. Abal edo kauzio-aseguruen kasuan, kreditu erakundeak, elkarrekiko bermerako sozietateak edo aseguru erakundeak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da. Bertan ageri behar dira abala edo kauzio-asegurua eman, mantendu eta kitatzeagatik hari ordaindutako kopuruak, eta abalatu edo aseguraturako zenbatekoa ere agertu behar da. Araudi honetako 56. artikuluan aipatutako gainerako bermeei dagokienez, 73. artikuluko 1. idatz-zatiko b), c) eta d) letretan aipatutako gastuak ordaindu direla frogatu behar da.

76. artikulua. Izapidetzea.

1. Prozedura izapidetzen duen organoak behar diren jarduketak egin ahal izango ditu eskatzen den itzulketaren bidezko tasuna egiaztatzeke, eta beharrezkotzat jotzen dituen txosten eta jarduketak eskatu ahal izango ditu.
2. Izapide-egintzen ondorioz bidezkoa bada jarritako bermearen kostua itzultzea, araudi honetako 70. artikuluan aipatutako kopuruak itzultzea erabakiko da, behar bezala egiaztaturik badaude eta osorik edo zati batean bidegabekotzat jo den egintzaren etendurari badagozkio.

3. Ongitzeko emandako epea luzatu ahal izango da, interesatuak hala eskatuz gero, baldin eta eskatzen diren agiri guztiak aurkezteko zailtasun bereziak eta behar bezala egiaztatuak badaude.
4. Jarduketak amaiturik, ebazpen proposamena egin aurretik, interesatuari entzunaldia emango zaio, bere eskubiderako komenigarritzat jotzen duena alegatu ahal izan dezan.

Hala ere, entzunaldiaren tramiterik egin beharrik ez da izango baldin eta prozeduran interesatuak aurkeztutako gertaera eta alegazioak baino ez badira ageri eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan ebazpena ematerakoan.

77. artikulua. Ebazpena.

1. Organo eskudunak ebazpena emango du eta hiru hilabeteko epean jakinaraziko du, interesatuaren eskaera-idazkia Zerga Administrazioan sartzen den egunetik aurrera zenbatuta.
2. Izapide-egintzen ondorioz bidezkoa bada jarritako bermearen kostua itzultzea, araudi honetako 70. artikuluan aipatutako kopuruak itzultzea erabakiko da, behar bezala egiaztaturik badaude eta osorik edo zati batean bidegabekotzat jo den egintzaren etendurari badagozkio.
3. Jakinarazpena egiteko epea igarotakoan, jakinarazpenik egin ez bada, interesatuak eskaerari gaitziritzi zaiola pentsatu ahalko du, ustezko ebazpenaren aurka bidezko errekurtsio edo erreklamazioa jartzearen ondoretarako.
4. Prozedura honi amaiera ematen dion ebazpenari erreklamazioa egin ahalko zaio bide ekonomiko-administratiboan; aurretik, nahi bada, berraztertze errekurtsioa jarri ahalko da.

78. artikulua. Betearazpena.

Bermeen kostuaren itzulketa erabakitzen duen ebazpena betearaztea zerga-bilketaren ardura duen organoari dagokio. Aurkaratutako zerga-zorra sarreren aurrekontuko zein kontzepturi egotzi zitzaion, harexen kargura egingo da ordainketa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Izaera publikoko beste sarrera batzuen itzulketa.

Araudi honetan zor ez ziren sarreren itzulketari buruz dauden xedapenak ordeko gisa aplikatuko dira tributuez besteko sarrera publikoak diren kopuruaren itzulketetan.

Bigarrena. Bermeen kostuaren itzulketa, geroratze eta zatikatze kasuetan.

Araudi honetako V. tituluko III. kapituluaren xedatutakoa bermeen kostuaren itzulketari aplikatuko zaio Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 32. artikuluan aurreikusitako geroratze eta zatikatze kasuetan.

Hirugarrena. Prozedura eskatzeko legebideztatuak eta zor ez ziren sarreren itzulketarako eskubidearen onuradunak, autolikidazioak zuzentzen direnean

...

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Administrazio bideko berrikuspen prozedurak.

Araudi hau indarrean jarri aurretik aurkeztutako etendura-eskaerak azkenera arte izapidetuko dira beraiek aurkeztu diren garaian indarra izan duen arautegiaren arabera.